


Iraganeko nahiz oraineko itzalak elkarrizketan jarri ditu Kepa Iribarrek 'Erleen azken ziztada' nobelan

Maddi Txinburreta 2025eko azaroaren 12a

Entzun ▶ ▼ Itzuli ▼



Kepa Iribar, Getariako kazetaria eta idazlea, eman berri duen lana eskuetan duela. (Erein)

Bigarren Mundu Gerran kokatutako iraganaren eta orainaren arteko ispilu jolasa planteatzen du Kepa Iribarren eleberri berriak. Getariako idazleak gaur aurkeztu du *Erleen azken ziztada*, Donostian.

Nobela beltzaren, kontakizun historikoaren nahiz dramaren artean dantza egiten du Kepa Iribar kazetari eta idazleak (Getaria, 1975) gaur, asteazkena, Donostian aurkeztu duen *Erleen azken ziztada* liburuak.

Bigarren eleberria du Arroabeko bizilagunak, eta **lehenengoa** (*72 ordu*, Erein) irakurri dutenek ezagun izango dituzten bi pertsonaia berreskuratu du lan berrian: Aitor Letamendia detektibea eta Edurne Rodríguez Ertzaintzako ofiziala. Bahiketa bat argitzeko arrastoen bila ari direla, iraganaren eta orainaren arteko ispilu joko batean amilduko dira, eta kontakizunak hartu-eman horretara sartuko du irakurlea ere.

Izan ere, bi denbora-lerroen arteko elkarrizketak josten du Kepa Iribarren nobela berriaren bilbea, eta gerrak, migrazioak nahiz ultraeskuinak egingo dituzte bien arteko zubi lanak. Batetik, Bigarren Mundu Gerraren garaian sartu du idazluma Iribarrek, eta 1944an, alemaniarren ihes betean, Bidasoaren ibaiertzean kokatu du istorio horren abiapuntua. Hala, gerrara joango den soldadu alemaniar baten egunerokoak eskainiko dio oinarria liburuak planteatuko duen galderari: zenbat iraun dezake iraganaren pozoiak?

Erantzunaren zati bat, berriz, egungo Getarian aurkituko du irakurleak, Letamendia eta Rodríguez agenteek bahiketa argitzeko derrigor iraganera jo behar dutela egiaztatuko dutenean. “Konturatuko dira kasuan aurrera egiteko, denboran atzera egin behar dutela”, zehaztu du idazleak.

Kontakizun osoan zehar, iraganeko nahiz gaur egungo pasarteetan, gurutzatuko dira talde nazi baten memoria iluna, fanatismoa, errua eta barkamena, oroimenaren zama, arrazakeria, migrazioan tragedia... funtsean, gizartearen hainbat itzal, Inazio Mujika Ereingo editoreak azaldu duenez. Eta horrek guztiak beste galdera bat agertuko du: zer gertatzen da egia lurperatzen dugunean?

Kepa Iribarrek Getarian aurkeztuko du bihar *Erleen azken ziztada* eleberria. 18:30ean hasiko du saioa, Zarautz jauregian.

KULTURA GETARIA ZESTOA

Gukak zu bezalako irakurleen babesa behar du tokiko informazioa euskaraz eta modu profesionalen lantzen jarraitzeko.

Izan Gukakide

Erantzun ▼

Turismo bulegoa
Zumaia - Udaletxea eta zerbitzuak

KARATE
ASUNA KANKU ES
Anaitasuna Kanku eskola
Azkoitia - KARATE TALDEA

Sonia fisioterapia eta osteopatia
Azkoitia - Fisioterapia

zero
Ileapaindegia
zero ile apaindegia
Azkoitia - Ile apaindegia

Alde egin behar, irauteko

Topaketetan, itzal antzerkia
ezagutuz eta harekin gozatuz

Libe Amas: "Pertsonaia nire erretratu nahiko fidela dela esango nuke"

Balentin Aldalur da 'Dabilen harriari' saioko aste honetako protagonista

Ikusienak

Erraldoiak kalera aterata ospatu dute San Martin eguna Errezilen
ERREZILGO SANMARTINAK 2025
Nerea Uranga
aza 11, 13:16 **ERREZIL**

Azoka, bertakoa eta aberatsa
Maillo Oiarzabal
aza 12, 09:20 **ZESTOA**

Txakolin dastaketarekin agurtu dituzte sanmartinak Askizun
Intza Trulia aza 11, 13:00
GETARIA

Esklabotzaren gatibu
FRANKISMOA: ORBAINAREN MINTZOA
Julene Frantzesena
aza 12, 08:25
UROLA KOSTA

Iraganeko nahiz oraineko itzalak elkarrizketan jarri ditu Kepa Iribarrek 'Erleen azken ziztada' nobelan
Maddi Txinburreta
aza 12, 12:07
GETARIA ZESTOA

Aukera desberdinen artean da udalak eraiki nahi duen gizarte zentroa
Ane Olaizola
aza 12, 12:19 **AZKOITIA**

UROLAKO KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP. ELK

Araba kalea, 27
20800 - ZARAUTZ
Telefonoa: 943 89 00 17 / 943 81 38 41 | Helbide elektronikoa: urolakosta@ukt.eus

Codesyntaxek garatua



HONI BURUZ

LEGE OHARRA

PUBLIZITATEA

ARAUAK

HARREMANETARAKO

RSS



Gertuko informazioa, euskaraz

AIARALDEA	AIKOR	AIURRI	ALEA	AMEZTI	ANBOTO	ANTXETA IRRATIA	ATARIA	AZPEITIA GUKA	AZKOITIA GUKA	BARREN	BEGITU
BERRIKETAN	DROGETEN ITTURRI	ERRAN	EUSKALERRIA IRRATIA	GEURIA	GOIENA	GOIERRI TELEBISTA	GUAIXE	GUKA	GUKA TELEBISTA		
HIRUKA	KRONIKA	MAILOPE	NOAUA	OIZMENDI TELEBISTA	ORIO GUKA	PLAENTXIA	TXINTXARRI	URIOLA	ZARAUTZ GUKA		
			ZUMAIA GUKA		28 KANALA						

Matx Gurean Ttap

Tokikom publikitatea